



**GASTEIZKO UDALAREN ETA NORTEGAS  
ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUREN ARTEKO  
HITZARMENAREN LUZAPENA, DATU  
TOPOGRAFIKOEN UDAL BASEA  
PARTEKATU ETA EGUNERATZEKO**

Vitoria-Gasteizen, 2025eko maiatzaren 5a

**BILDURIK**

Alde batetik, Borja Rodríguez Ramajo jauna, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzia, karguari dagozkion zereginak betetzen dituelarik.

Bestetik, Francisco Javier Bermejillo Eguia. jauna, Nortegas Energía Distribución SAUko ordezkatzeko ahalmenarekin dagozkion zereginak betetzen dituelarik.

Dokumentu hau sinatzeko gaitasun juridikoa aitortzen diote bi aldeek elkarri, bakoitzak ordezkatzeko duen entitatearen izenean, eta hau

**ADIERAZTEN DUTE:**

**LEHENA:** Datu topografikoen udal base bat du Gasteizko Udalak, hiru dimentsioko zenbakizko informazio-geruza homogenez osatua, behar bezala eguneratua, bestek beste hornikuntza-sareekin.

**BIGARRENA:** Nortegas Energía Distribución SAU Espainiako merkataritza-sozietate bat da, gasaren sektoreko helburu sozial bakarra banaketa-jarduera duena, Hidrokarburoen sektoreari buruzko 34/1998 Legearen ildotik; gas naturalaren hornikuntza-eta banaketa-zerbitzua emateko administrazio-baimenaren titularra da, eta bere gain hartuak ditu Gasteizko udalerrian gasa hornitu eta banatzeko jardueraren ondorio diren eskubide eta betebeharrak oro.

**PRÓRROGA DEL CONVENIO ENTRE EL  
AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ Y  
NORTEGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN, S.A.U.  
PARA COMPARTIR Y ACTUALIZAR LA BASE  
MUNICIPAL DE DATOS TOPOGRÁFICOS**

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 2025

**REUNIDOS**

De una parte, D. Borja Rodríguez Ramajo, en su calidad de Concejal Delegado del Departamento de Modelo de Ciudad, Urbanismo, Vivienda, Limpieza y Medio Ambiente de Vitoria-Gasteiz, en ejercicio de las funciones propias de su cargo.

De otra parte, D. Francisco Javier Bermejillo Eguia., con poder de representación de Nortegas Energía Distribución, S.A.U.

Las partes se reconocen mutuamente capacidad jurídica suficiente para suscribir el presente documento en nombre de las respectivas entidades, y a tales efectos

**EXPONEN:**

**PRIMERO:** Que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz dispone de una Base Municipal de Datos Topográficos formada por capas homogéneas de información numérica tridimensional, actualizada debidamente, entre otros conceptos, con las redes de suministro.

**SEGUNDO:** Que Nortegas Energía Distribución, S.A.U. es una sociedad mercantil española cuyo único objeto social en el sector gasista es la actividad de distribución conforme a la Ley 34/1998 del sector de hidrocarburos, siendo titular de la Autorización Administrativa para la prestación del servicio de suministro y distribución de gas natural, asumiendo la totalidad de los derechos y obligaciones derivados de la actividad de suministro y distribución de gas en el término municipal de Vitoria-Gasteiz.



**HIRUGARRENA:** Datu topografikoen udal basea partekatu eta eguneratuz —gas-hornikuntzaren sareei dagokienez beren zerbitzuen kalitatea eta lanaren efizientzia hobetu eta baliabideak aurreztea interesatzen zaie bi entitateei, modernizazioan aurrera eginez, datuak trukatzeko estrategiak martxan jarritz.

Bi aldeen interesekoa da datu topografikoen basea eguneratzeko prozesua koordinatzea, elkarlanean, hartara kartografia eguneratua edukitzeko; batetik, Gasteizko Udalak zerbitzua hobetzeko aukera izan dezan, eta, bestetik, Nortegasek aukera izan dezan sarea handitu eta hartuneak jartzeko eskabideak modu egokian aurkezteko Udalari.

Bi aldeek uste dute lankidetzahitzarmena sinatu beharra dagoela datu topografikoen udal basea eguneratzeko, eta — klausula hauen arabera— hori izenpetzeko nahikoa lege-ahalmena aitortzen diote elkarri

#### **KLAUSULAK:**

##### **1. HITZARMENAREN XEDEA:**

Gasteizko Udalaren eta Nortegasen arteko hitzarmen honen xedea da bi entitateen arteko lankidetzahitzarmena, informazio topografikoa eguneratzerik izan dadin, gas-hornikuntzarako sareei dagokienez, baliabideak aurrezteko eta datu topografikoen udal basea etengabe eguneratuta edukitzeko.

##### **2. HELBURUA ETA FUNTZIONAMENDUA:**

Hitzarmen honen bitartez aurreikusten da Udalak kartografia etengabe eguneratuta edukitzea, gas-hornikuntzarako sareari dagokionez, jakitun suertatzen den gas-hornikuntzarako sare guztien eguneratzea

**TERCERO:** Que ambas entidades están interesadas en mejorar la calidad de sus servicios, eficiencia de su trabajo y economizar los recursos, compartiendo y actualizando la base municipal de datos topográficos, en lo que a redes de suministro de gas se refiere; avanzando en su modernización mediante la puesta en marcha de estrategias de intercambio de datos.

Que es del interés de ambas partes proceder, en el marco de la colaboración a coordinar el proceso de actualización de la Base de Datos Topográficos, con la finalidad de disponer de una cartografía actualizada que permite mejorar el servicio del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y a Nortegas realizar las solicitudes de ampliación de red y acometidas de forma adecuada ante el Ayuntamiento.

A tal fin, las partes intervinientes estiman necesario suscribir un Convenio de Colaboración para Actualizar la Base Municipal de Datos Topográficos, y se reconocen capacidad legal suficiente para celebrar el mismo, conforme a las siguientes

#### **CLÁUSULAS:**

##### **1. OBJETO DEL CONVENIO:**

El objeto del presente convenio entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Nortegas es permitir la cooperación entre ambas entidades para posibilitar la actualización de la información topográfica en lo relativo a las redes de suministro de gas para economizar los recursos y mantener la Base Municipal de Datos Topográficos constantemente actualizada.

##### **2. FINALIDAD Y FUNCIONAMIENTO:**

Mediante este Convenio se prevé que el Ayuntamiento disponga de una Cartografía constantemente actualizada en cuanto a la red de suministro de gas se refiere, al comprometerse Nortegas a remitir al



Gasteizko Udalari bidaltzeko konpromisoa hartuko baitu Nortegasek, hartara datu topografikoen udal basea behar bezala eguneratuta egon dadin.

Gainera, Udalari sarea handitu eta hartuneak jartzeko eskabideak egiterik izan dezan cartografía eguneratua edukitzeko aukera eman nahi zaio Naturgasi, hartara instalazioen segurtasuna areagotu dadin eta larrialdiko edozein kontsulta edo eskuhartzeren aurrean erantzun arin eta egokia eman dadin.

Beraz, Gasteizko Udalaren eta Nortegasen arteko lankidetzak da hitzarmenaren helburua, datu topografikoak trukatzeko —Gasteizko udalerriko topografiako geruza guztiak barne—, hartara kasuen ebazpena arinduko baita eta, horrenbestez, udal zerbitzua hobetuko.

Hitzarmen hau sinatzean, euskarri digitalean gauzatuko da informazio-trukea, DXF formatuan eta 1:500 eta 1:2000 eskaletan. Nolanahi ere, noiznahi berrikusi ahal izango dira ezaugarri horiek, Gasteizko Udalak komenigarritzat jotzen badu

### 3. NORTEGASEN KONPROMISOAK:

Nortegas Energía Distribución SAUK konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Trukatzen den informazioa behar bezala erabiltzea.
2. Une oro errespetatzea Gasteizko Udalaren lerroakadura, sestra, zuinketa akta eta obra amaierako planoei buruzko udal ordenantza —1999ko azaroaren 12ko ALHAOn (133 zk.), argitaratuta eta geroztik argitaratutako aldaketekin batera, 2002ko urriaren 23ko ALHAOn (121. zk.), 2004ko urriaren 1eko ALHAOn (114. zk.),

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz la actualización de todas las redes de suministro de gas de las que tenga conocimiento, de manera que la Base Municipal de Datos Topográficos esté debidamente actualizada.

Además, se pretende habilitar a Nortegas a disponer de la cartografía actualizada que le permita realizar las solicitudes de ampliación de red y acometidas de forma adecuada ante el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de manera que se aumente la seguridad de las instalaciones y se de una ágil y correcta respuesta ante cualquier tipo de consulta o de intervención de emergencia.

Por tanto, la finalidad del Convenio es la cooperación entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Nortegas, para el intercambio de datos topográficos, conteniendo la totalidad de capas que se relacionen para la topografía del término municipal de Vitoria-Gasteiz que agilizarían la resolución de los casos y, por consiguiente, mejoraría el servicio municipal.

A la firma del presente convenio, el intercambio de información se concreta en soporte digital, formato DXF y escalas 1:500 así como 1:2000. No obstante lo anterior, estas características podrán ser objeto de revisión cuando el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz lo considere conveniente.

### 3. COMPROMISOS DE NORTEGAS:

Nortegas Energía Distribución, S.A.U. se compromete a:

1. Hacer un uso adecuado de la información intercambiada.
2. Respetar en todo momento la Ordenanza Municipal sobre Alineaciones, Rasantes, Actas de Replanteo y Trabajos de Fin de Obra del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz BOTHA nº 133 de 12 de noviembre de 1999 así como a sus modificaciones posteriores publicadas en el BOTHA nº121 de 23 de octubre de 2002,



2009ko maiatzaren 15eko ALHAOn (55. zk.) eta 2011ko urtarrilaren 21eko ALHAOn (9. zk.), edo, halakorik ezean, horretarako indarrean dagoen udal-araua.

3. Udal kartografia eguneratzea, aldaketaren bat antzematen den guztietan.
4. Datuen pribatutasuna errespetatzea eta datu topografikoen udal basea ez partekatzea hitzarmen honetan aurreikusita gabeko beste edozein entitate, erabiltzaile edo hartzaileekin.
5. Datu topografikoen udal basean edozein akats antzemanaz gero, Udalari jakinaraztea.
6. Udal base kartografikoa gutxienez urtean behin eguneratzea, edo Gasteizko Udaleko Topografia Atalaren beharren arabera
7. Udalak egiten dizkion eskari guztiei erantzutea.

#### **4. GASTEIZKO UDALAREN KONPROMISOAK:**

Gasteizko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Hitzarmenaren helburuak betetzeko behar den informazioa ematea Nortegasi, aurreikusitako bitartekoak direla medio.
2. Nortegasek egiten dituen eguneratzeak Gasteizko Udalaren lerroakadura, sestra, zuinketa akta eta obra amaierako planoei buruzko udal ordenantzaren 1999ko azaroaren 12ko ALHAOn (133. zk.), argitaratuta eta geroztik argitaratutako aldaketekin batera, 2002ko urriaren 23ko ALHAOn (121. zk.), 2004ko urriaren 1eko

BOTHA nº114 de 1 de octubre de 2004 BOTHA nº55 de 15 de mayo de 2009 y BOTHA nº9 de 21 de enero de 2011 o, en su defecto, la norma municipal vigente al efecto.

3. Actualizar la Cartografía Municipal cada vez que se aprecien alteraciones al respecto.
4. Respetar la privacidad de los datos y no compartir la Base Municipal de Datos Topográficos con ninguna otra entidad, usuario o destinatario que no sea previsto en este Convenio.
5. Comunicar al Ayuntamiento cualquier error que pudiesen detectar en la Base Municipal de Datos Topográficos.
6. Actualizar la Base Municipal Cartográfica, al menos una vez al año, o según necesidades de la Unidad de Topografía del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.
7. Atender todas las peticiones que desde el Ayuntamiento se les pudieran requerir.

#### **4. COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ:**

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se compromete a:

1. Facilitar mediante los medios previstos la información necesaria a Nortegas para el cumplimiento de los fines del Convenio.
2. Incorporar en la Base Municipal de Datos Topográficos las actualizaciones promovidas por Nortegas y documentadas en base a los requerimientos establecidos por la Ordenanza Municipal sobre Alineaciones, Rasantes, Actas de Replanteo y Trabajos de Fin de Obra del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz



ALHAOn (114. zk.), 2009ko maiatzaren 15eko ALHAOn (55. zk.) eta 2011ko urtarrilaren 21eko ALHAOn (9. zk.), edota, halakorik ezean, arlo horretan indarrean dagoen udal-arauan ezarritako eskakizunen arabera dokumentatuta Gasteizko Udalaren datu topografikoen basean sartzea.

#### **5. GASTEIZKO UDALAREN DATU TOPOGRAFIKOEN UDAL BASEAREN FORMATUA ETA SARTZEKO BETEBEHARRAK:**

Gasteizko Udaleko Topografia Atalak, bitarteko elektronikoen bidez helaraziko dio Nortegasi datu topografikoen udal base, 1:500 eta 1:2000 eskaletan.

Era berean, bitarteko elektronikoen bidez transferituko dizkio Nortegasek Gasteizko Udalari datu topografiko eguneratuak, baldintza berberetan.

Artxiboak trukatzeko sistema Informazioaren Teknologien Zerbitzuak zehaztuko du, datuen pribatutasuna eta trukatzeko egokia ziurtatzen dituelarik —ez die inolako kostu ekonomikorik ekarri beharko hitzarmen hau sinatzen duten aldeei.

#### **6. HITZARMENAREN JARRAIPEN-MAHAIA:**

Hitzarmen honen gauzatze egokia eta jarraipena bermatzeko, jarraipen-batzorde bat eratuko dute Gasteizko Udalak eta Nortegas Energía Distribución SAUK. Gasteizko Udaleko Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Sailaren eta Nortegas Energía Distribución SAUren ordezkari banak osatuko dute mahai hori.

(BOTHAn nº 133 de 12 de noviembre de 1999) así como a sus modificaciones posteriores publicadas en el BOTHAn nº121 de 23 de octubre de 2002, BOTHAn nº114 de 1 de octubre de 2004 BOTHAn nº55 de 15 de mayo de 2009 y BOTHAn nº9 de 21 de enero de 2011 o, en su defecto, la norma municipal vigente al efecto.

#### **5. FORMATO Y REQUISITOS DEL ACCESO A LA BASE MUNICIPAL DE DATOS TOPOGRÁFICOS DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ:**

La Unidad de Topografía del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz mediante medios electrónicos hará llegar a Nortegas la Base Municipal de Datos Topográficos en escala 1:500 y 1:2000.

A su vez, mediante medios electrónicos Nortegas transferirá los datos topográficos actualizados al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en los mismos términos.

El sistema de intercambio de archivos será el determinado al efecto por el Servicio de Tecnologías de la Información, asegurando la privacidad de los datos y el correcto intercambio de los mismos, sin que ninguno de ellos genere coste económico alguno a las partes de este Convenio.

#### **6. MESA DE SEGUIMIENTO DEL CONVENIO:**

Para garantizar la correcta ejecución y el seguimiento de lo establecido en este convenio, se constituye una Comisión de Seguimiento entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Nortegas Energía Distribución, S.A.U. Esta mesa estará constituida por un representante del Departamento de Modelo de Ciudad, Urbanismo, Vivienda, Limpieza y Medio Ambiente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y un representante de Nortegas Energía Distribución, S.A.U.



Jarraipen-mahaia urtean behin bilduko da, behar izanez gero, identifikatzen diren zailtasunak aztertzeko eta datu topografikoen udal basearen transferentzia eta kudeaketa ahalbidetzeko mekanismoak finkatzeko. Jarraipen-batzorde hori honetaz arduratuko da, nagusiki:

- Hitzarmen hau gauzatzean, aplikatzean edo interpretatzean sor litezkeen gatazka edo eztabaidak ebazteaz.
- Hitzarmena gauzatzeko aplikatu beharreko teknologia, teknika eta metodoen bilakaeraren jarraipena egiteaz, eta bilakaera horrek eskatzen dituen zehaztapen-aldaketak proposatzeaz.
- Lankidetzahitzarmenaren luzapenak proposatzeaz, egin beharreko lanak hala eskatzen badu.

#### **7. HITZARMENAREN INDARRALDIA:**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikulua ildotik, lau urteko indarraldia izango du hitzarmenak. Edozein unetan aurreko paragrafoan aurreikusitako epea bukatu aurretik, aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena sinatzen duten aldeek hori beste lau urtez luzatzea, edo iraungitatz jotzea.

Aldeetako batek indarraldia bukatutzat jotzeko asmoa badu, idatziz jakinarazi beharko dio beste aldeari, gutxienez hilabete lehenago.

#### **8. HITZARMENA INDARGABETZEA:**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikulua ildotik, xede dituen jarduerak burutzen direlarik nahiz bertan behera uzteko arrazoiak egokitzen direlarik iraungiko da hitzarmena.

La Mesa de Seguimiento se reunirá, si fuera necesario, una vez al año con objeto de analizar en dichas sesiones las dificultades que hayan podido identificarse y fijar los mecanismos para posibilitar la transferencia y gestión de la Base Municipal de Datos Topográficos. Así, la Comisión de Seguimiento se encargará, principalmente, de:

- Dirimir los conflictos o controversias que pudieran surgir en la ejecución, aplicación o interpretación de este convenio.
- Seguir la evolución de las tecnologías, técnicas, y métodos de aplicación a la ejecución del convenio, y proponer a las partes las modificaciones en las especificaciones que esta evolución aconseje.
- Proponer prórrogas del presente Convenio de colaboración, si el trabajo a desarrollar lo aconseja.

#### **7. VIGENCIA DEL CONVENIO:**

De acuerdo con el artículo 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público la vigencia del convenio será de 4 años. En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

En caso de que alguna de las partes tenga la intención de poner fin a esta vigencia, deberá comunicarlo por escrito a la otra parte, con una antelación mínima de 1 mes.

#### **8. RESOLUCIÓN DEL CONVENIO:**

De acuerdo con el artículo 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público el convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causas de resolución.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



Hauek izango dira hitzarmena indargabetzeko arrazoiak: alde batek edo besteak klausularen bat ez betetzea, sinatzaile guztiek aho batez adostea, indarraldia bukatu aurretik ez luzatzea, hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala, eta legeetan aurreikusitako beste edozein, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean aurreikusitakoaren ildotik.

#### **9. IZAERA ETA INTERPRETAZIOA:**

Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, eta administrazio-zuzenbidearen mende egongo da, interpretatzeari eta garatzeari dagokionez.

Hitzarmen honen inguruko edozein kontu dela eta interpretazioa, aldaketa, eraginak, bertan behera uztea auzia sortuz gero, eta jarraipen-batzordeak ebatzi ezin izan badu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoa izango da ebaztea.

Eta, adostasunaren erakusgarri, hitzarmen hau izenpetu dute, idazpuruan ageri diren lekuan eta egunean.

Serán causas de resolución el incumplimiento de alguna de las cláusulas por cualquiera de las partes firmantes, el acuerdo unánime de todos los firmantes, el transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo, la decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio y cualquier otra causa prevista en otras leyes en los términos previstos en la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público.

#### **9. NATURALEZA E INTERPRETACIÓN:**

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el derecho administrativo.

Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos o resolución del mismo, y que no hayan podido ser dirimidas por la Comisión de Seguimiento creada al efecto, serán de conocimiento de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Y en prueba de conformidad, firman el presente convenio, por triplicado, en el lugar y fecha del encabezamiento.

**Borja Rodríguez Ramajo**  
**VITORIA-GASTEIZKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ**

**Francisco Javier Bermejillo Eguía**  
**NORTEGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN,**  
**S.A.U.**